ZEANURIKO UDALA
(BIZKAIA)

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

# ZEANURIKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA,

## PROIEKTU HONETAN BARNE HARTUTAKO OBRAK EGIKARITU, FINANTZATU, KONTSERBATU ETA MANTENTZEKO: "UNDURRAGAKO PRESAKO ZERBITZU-BIDERA SARTZEKO OINEZKOENTZAKO BIDEA"

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ZEANURI Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA

## PARA LA EJECUCIÓN, FINANCIACIÓN, CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL PROYECTO: "CAMINO PEATONAL DE ACCESO AL CAMINO DE SERVICIOS DE LA PRESA DE UNDURRAGA"

ZEANURIKO UDALA
(BIZKAIA)

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Bilbon, 2017ko martxoaren 1ean

En Bilbao, a 1 de marzo de 2017

**BILDU DIRA**

**EUSEBIO LARRAZABAL** jauna, Zeanuriko alkate udalburua, 2017ko urtarrilaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera jardun dena.

**RICARDO BARKALA ZUMELZU** jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2016ko apirilaren 12ko erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.

**REUNIDOS**

**D. EUSEBIO LARRAZABAL**, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zeanuri, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno de fecha 27 de enero de 2017.

**D. RICARDO BARKALA ZUMELZU**, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 12 de abril de 2016.

**ESKU HARTZEA**

Esku-hartzaileek euren erakundeetako presidente eta ordezkari gisa esku hartzen dute. LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

**INTERVIENEN**

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

**ADIERAZI DUTE**

**LEHENENGOA.**
Undurragako urtegiaren eskuinaldean zerbitzu-bide bat dago, Zeanuriko hirigunearen hegoaldetik kilometro batera kokatuta dagoena. Tarte horrek 1.200 metro inguruko luzera dauka eta antzina Iberdrolaren jabetzakoak ziren etxebizitzen sarbidea (Undurragako bidea, 62) eta BBUPren titulartasunekoa den Undurragako presaren gailurra lotzen ditu.

**BIGARRENA.**
Gaur egun, Zeanuriko hirigunetik bide horretara heldu ahal izateko Undurragako presaren gailurretik joatea baino ez dago.

Urtegiaren amaieran dauden auzoen eta Zeanuri udalerriko hirigunearen artean lekualdatzen diren pertsonek bide hori pasealeku gisa erabil dezakete.

**EXPONEN**

**PRIMERO.**
Que existe un camino de servicios en la margen derecha del embalse de Undúrraga, ubicado a 1 km al sur del núcleo urbano de Zeanuri, en un tramo aproximado de 1.200 m, comprendido entre el acceso a las viviendas antigua propiedad de Iberdrola (nº 62 camino de Undúrraga) y la coronación de la presa de Undúrraga, titularidad del C.A.B.B.

**SEGUNDO.**
Que, actualmente, el acceso a dicho camino desde el núcleo urbano de Zeanuri sólo puede realizarse a través de la coronación de la presa de Undúrraga.

Este camino puede ser utilizado como paseo por personas que se desplacen entre los barrios situados en la cola del embalse y el núcleo urbano del municipio de Zeanuri

Segurtasun arrazoiak direla eta, azpiegitura kritikoa denez gero, BBUPk uste du ez dela egokia BBUPn lan egiten ez duten pertsonak presara gailurretik sartzea.

Hori dela eta, arriskuak ekidite aldera, zerbitzu-bidetik banatutako sarbide bat eraikitzea proposatu da. Oinezkoentzako bide-tarte berri horrek hirurehun metro (300,00) inguruko luzera izango du eta N-240 errepidearen paraleloa izango da. Hala, aipatutako zerbitzu-bidea Zeanuriko hirigunera doan eta dagoeneko eginda dagoen beste bide batekin lotuko da.

Lur-mugimenduak saiheste aldera, tarte horretan maldak duen inklinazio nabarmena eta N-240 errepidearekiko hurbiltasuna kontuan hartuta, bi (2,00) metroko zabalera duen zurezko pasabide gidatu bat eraikitzea proposatu da.

**HIRUGARRENA.**
Partzuergoko Zerbitzu Teknikoek proiektu bat idatzi dute ezaugarri hauekin:

- "UNDURRAGAKO PRESAKO ZERBITZU-BIDERA SARTZEKO OINEZKOENTZAKO BIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA", 152.644,20 euroko (BEZa barne) kontrata bidezko egikaritze-aurrekontuarekin eta hiru hilabeteko egikaritze-epearekin.

Esku hartzaileek proiektu horren edukia ezagutzen dute. Bertan, zurezko plataforma gidatu batean datzan 2,00 metroko zabalera duen oinezkoentzako bidea egikaritzeko obrak definitzen dira.

**LAUGARRENA.**
Bi erakundeek interes handia dute "Undurragako presako zerbitzu-bidera sartzeko oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektuan" definitutako obrak burutzeko, egungo egoera nabarmen hobetze aldera.

**BOSGARRENA.**
Administrazio Publikoen arteko harremanetan

Que, por motivos de seguridad al ser una infraestructura crítica, el CABB considera que no es adecuado el acceso de personal ajeno a la presa por la coronación de la misma.

Por ello, para evitar riesgos, se propone la construcción de un acceso independiente al camino de servicios, consistente en un nuevo tramo de camino peatonal de aproximadamente trescientos (300,00) metros de longitud paralelo a la N-240, que conectará el mencionado camino de servicios con uno existente que conduce al núcleo urbano de Zeanuri.

Con objeto de evitar movimientos de tierra, dada la fuerte inclinación de la ladera en ese tramo y la proximidad a la N-240, se propone la construcción de una pasarela de madera pilotada de dos (2,00) metros de anchura.

**TERCERO.**
Que los Servicios Técnicos del Consorcio han redactado un proyecto con las siguientes características:

- PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE CAMINO PEATONAL DE ACCESO AL CAMINO DE SERVICIOS DE LA PRESA DE UNDURRAGA", con un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido de 152.644,20 euros y un plazo de ejecución de 3 meses.

Los intervinientes conocen el contenido de dicho Proyecto en el que se definen las obras para la ejecución del camino peatonal de 2,00 metros de anchura consistente en una plataforma pilotada de madera.

**CUARTO.**
Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido proyecto, "Proyecto de construcción de camino peatonal de acceso al camino de servicios de la Presa de Undúrraga", a fin de mejorar considerablemente la situación actual.

**QUINTO.**
Que teniendo en cuenta el principio de

bete beharreko lankidetza-printzipioa kontuan hartuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 4.1.d) artikuluan ezarritakoa dela bide, esku-hartzaileek lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute. Horretarako, honako klausula hauek hartuko dituzte oinarri:

cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 4.1.d) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

## CLAUSULAS

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA**
Hitzarmen honen xede diren lanak proiektu honetan definitu dira:

- "Undurragako presako zerbitzu-bidera sartzeko oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektua", 152.644,20 euroko (BEZa barne) kontrata bidezko egikaritze-aurrekontuarekin eta hiru hilabeteko egikaritze-epearekin.

Proiektu horretan barne hartutako jarduketak beharrezkoak dira 300 metroko luzera duen oinezkoentzako bide bat egiteko. Bide hori bi metroko zabalera duen zurezko pasabide gidatu batek osatuko du eta puntu bakoitzean lurrari egokituta egongo da. Pasabideak eskudel bat izango du, hori ere zurezkoa, eta aldapa dagoen aldean jarriko da.

**PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO**
Las obras objeto del Convenio son las definidas en el siguiente proyecto:

- "Proyecto de construcción de camino peatonal de acceso al camino de servicios de la Presa de Undúrraga", con un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de 152.644,20 (IVA incluido) y un plazo de ejecución de 3 meses.

Las actuaciones incluidas en dicho Proyecto son las necesarias para la ejecución de un camino peatonal de trescientos metros de longitud, formado por una pasarela de madera pilotada de dos metros de anchura adaptada al terreno en cada punto. La pasarela dispondrá de barandilla, también de madera, en el lado del terraplén.

**BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**
Proiektu tekniko egokia Ur Partzuergoak idatzi eta onetsi du. Proiektu hori lanak kontratatu eta egikaritzeko oinarri gisa erabiliko da. Lur-eremu horren orografia dela eta, aipatutako proiektuaren xede den oinezkoentzako bidea ez da mugikortasun murriztua duten pertsonentzako irisgarria izango.

**SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**
El correspondiente Proyecto Técnico ha sido redactado por el Consorcio de Aguas, siendo aprobado por éste mismo. Dicho proyecto servirá de base para la contratación y ejecución de las obras. Dada la orografía del terreno, el camino peatonal objeto del proyecto citado, no resuelve el acceso a personas con movilidad reducida.

**HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA ETA BAIMENAK**
Zeanuriko Udalak lurzoruen erabilgarritasuna eta baimenak eskuratzeko konpromisoa hartzen du, hitzarmen honen xede diren obra guztiak egoki egikaritzeko beharrezkoak direnak.

**TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO Y AUTORIZACIONES**
El Ayuntamiento de Zeanuri se compromete a la obtención de las autorizaciones y disponibilidad de terrenos que exijan la correcta y total ejecución de las obras objeto del presente Convenio.

**LAUGARRENA.- OBREN KONTRATAZIOA**

Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea izango da obren kontratazio-organoa.

Horrenbestez, organo horrek kontratazio-prozedura osorik izapidetzeko betebeharra izango du, bere dituen ahalmenen eta erregimenaren arabera.

Hori guztia dela eta, Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari dagokio obrak adjudikatzea, Kontratazio Mahaiak hala proposatuta, eta Zeanuriko Udalari horren berri ematea.

Partzuergoak aipatutako obren eraikuntza adjudikatuko du, Zeanuriko Udalak obrak egikaritzeko baimen eta lursail guztiak Partzuergoaren eskura jartzen dituenean.

**BOSGARRENA.- OBREN ZUZENDARITZA**

Behin lanak kontratatu eta beharrezko baimen guztiak eskuratu ostean, Partzuergoko teknikariek zuzenduko dituzte obrak.

**SEIGARRENA.- OBREN FINANTZAKETA ETA LURZORUAREN KUDEAKETA**

Obren finantzaketa BBUPren kontura izango da.

"Undurragako presako zerbitzu-bidera sartzeko oinezkoentzako bidea eraikitzeko proiektuan" kalkulatutako obren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 152.644,20 eurokoa da (BEZa barne).

**ZAZPIGARRENA.- OBREN TITULARTASUNA, KONTSERBAZIOA, MANTENTZEA ETA KONPONKETA**

Ur Partzuergoak obrak jasotzeko ekitaldi formala egingo du. Ekitaldi horretara bertaratzeko deia egingo zaio Zeanuriko Udaleko ordezkari bati, eta, ekitaldi horretan bertan, obrak eta obrei atxikitako ondasun eta eskubideak udal-titulartasunekoak izatera igaroko dira; ondorioz, udalak bere gain hartuko ditu instalazio, eskubide eta

**CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**

El órgano de contratación de las obras será el Comité Directivo del Consorcio.

En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

Por todo ello, corresponderá al Comité Directivo del Consorcio la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación, dando cuenta de la misma al Ayuntamiento de Zeanuri.

El Consorcio adjudicará la construcción de las citadas obras una vez que el Ayuntamiento de Zeanuri haya puesto a disposición de aquél los terrenos y autorizaciones precisas para su ejecución.

**QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Consorcio.

**SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS Y DE LA GESTIÓN DEL SUELO**

La financiación de las obras será por cuenta de C.A.B.B.

El presupuesto base de licitación de las obras calculado en el "Proyecto de construcción de camino peatonal de acceso al camino de servicios de la Presa de Undúrraga" asciende a la cantidad de 152.644,20 (IVA incluido).

**SÉPTIMA.- TITULARIDAD, CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y REPARACIÓNDE LAS OBRAS**

Efectuada la recepción de las obras por el Consorcio de Aguas, a cuyo acto formal será convocado un representante del Ayuntamiento de Zeanuri, éstas y los bienes y derechos adscritos a las mismas pasarán, en el mismo acto, a ser de titularidad municipal y, en consecuencia, el Ayuntamiento asumirá los derechos y obligaciones derivados de la

ZEANURIKO UDALA (BIZKAIA)

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

ondasunen jabetzaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak eta azken horien ustiapena eta mantentzea.

**ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonek osatuko dute: Udaleko bi ordezkarik eta Partzuergoko beste bik.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien arten sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta kolaboraziozkoak argitzea.

**BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUNALDIA**

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta esku-hartzaileak behartuko ditu sinatzen denetik aurrera eta Obrak Jasotzeko ekitaldia egiten den arte.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

**EUSEBIO LARRAZABAL**
**Zeanuriko Udalaren Alkatea-Udalburua**
**Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zeanuri**

propiedad de los bienes, derechos e instalaciones, y la explotación y mantenimiento de éstas últimas.

**OCTAVA.- COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del municipio y dos por parte del Consorcio.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**NOVENA.- EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se realice la Recepción de las Obras.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**RICARDO BARKALA ZUMELZU**
**Bilbao-Bizkaia Ur-Partzuergoa Presidentea**
**Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia"**




**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**
**Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ZERBITZU TEKNIKOAK<br>HORNIDURAREN ZUZENDARITZAORDEA<br>AZTERKETA, PROIEKTU ETA LANAK<br>SERVICIOS TECNICOS<br>SUBDIRECCION DE ABASTECIMIENTO<br>ESTUDIOS, PROYECTOS Y OBRAS | PROIEKTUAREN INGENIARI ZUZENDARIA<br>INGENIERO DIRECTOR PROYECTO<br>Cristina Ortiz... | ZERBITZU TEKNIKOETAKO ZUZENDARIORDEA<br>SUBDIRECTOR SERVICIOS TECNICOS<br>Adolfo Múgica | eskala:<br>escala:<br>1/2500<br>A-3 jatorrizkoak originales | -12,5 0 ... 67,5m.<br>grafikoa gráfica | plano-izenburua:<br>título del proyecto:<br>PROYECTO DEL CAMINO PEATONAL DE ACCESO AL CAMINO DE LA PRESA DE UNDURRAGA | data:<br>fecha:<br>Noviembre 2016 |

plano-izenburua:
título del plano:
Plano de situación

1




Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia




Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

ZERBITZU TEKNIKOAK
HORNIDURAREN ZUZENDARITZAORDEA
SERVICIOS TECNICOS
SUBDIRECCION DE ABASTECIMIENTO
ESTUDIOS, PROYECTOS Y OBRAS

Cristina Gardeazabal

Arkaitz Mágica

escalas: 1/1000

A-3

0 — 25m.

título del proyecto:
PROYECTO DEL CAMINO PEATONAL DE ACCESO AL CAMINO DE LA PRESA DE UNDURRAGA

fecha: Noviembre 2016

título del plano:
Definición en planta

2 | 1